



2. IBILBIDEA Baso artean

FITXA TEKNIKOA



ZAILTASUN MAILA

Gogorra



IRTEERA

Durango



HELMUGA

Durango



DISTANTZIA

24,46 km



IGOERA METATUA

734 m



IRAUPENA

2ordu


IBILBIDEA Durango - San Juan ermita - Forestala - Maumeko ataria - Oromiño/Bakixa - Arriandi.

ZAILTASUNA Ez da oso luzea, baina bai nahiko gogorra, fisikoki zein teknikoki.

ZORU MOTA % 70 porlanezkoa edota asfaltatua eta % 30 mendi pistak.

OHARRAK Euria egiten duenean putzu asko topa ditzakegu.

PERFILA





2. IBILBIDEA Baso artean

Ibilbide honen ezaugarri nagusia basoak zeharkatzen dituela da. Beraz, BTTa atsegin dutenentzat interesgarriagoa da (lokatza, putzuak,...).

Durango Madalena plazatik Frantzisko Ibarra kaletik behera, N-634 errepidea gurutzatuko dugu Iurretarrantz. Ondoren BI-3341 errepidea hartuko dugu Goiurirantz, baina Iurretako hilerria iristean, behealdeko eskumako pista hartuko dugu. Ondoren, zuzen jarraitu eta pinudi batera iritsiko gara. Bertan beste bidegurutze bat topatuko dugu, eskumatara hartuko dugu, beti ere, porlanezko pista bati jarraituz. Pinudiko malda gogorra da.

Pinudia zeharkatu ostean baserri batzuk daude, ezkerretara egin eta San Juan ermitara helduko gara. Bertan ura edateko aprobetxa dezakegu, ibilbidean ez baitugu iturri asko topatuko.

San Juanetik gorantz hartuko dugu eta BI-3341 errepidera iristean, ezkerretara joko dugu, Goiurirantz. 900 m egin eta gero, Oiz mendirantz doan porlanezko bidea hartuko dugu eta, 8,8 Km betetzeaz batera, Forestalera iritsiko gara. Hor, Oiz mendira daraman pista utzi eta ezkerreko pistatik behera hartuko dugu.

Ondorengo bidegurutzean, eskumako pistatik egingo dugu aurrera. Ondorengo 3 Km-etan, 12. a bete arte, ez dago galtzerik. Pista honetan putzu asko topa ditzakegu eta ibilbide gorabeheratsua da.

12. Km-a betetzen dugunean, ezkerreko pista hartuko dugu beherantz. 12,7 egitean kontuz, ezkerretara hartuko dugu, 13,4.a arte. Bihurgunean ezkerretara hartu, jarraian pista utzi eta eskumatara egingo dugu pinu artean (hau lasterbide tekniko polita da). Maumeko baserri batera iritsiko gara eta, haren parean, ezkerretara dagoen bidetxo batetik gora egingo dugu. Ate bi zabaldu ondoren, Maumeko atarirantz gorantz egingo dugu. Maumeko Atarian (14,6 Km), eskumako pista hartuko dugu, eta 15,3. Km-an, berriz ere eskumatara egingo dugu pista zabalagotik Oromiñorantz.

19. Km-an, Muniketara doan BI-3332 errepidea topatuko dugu eta ezkerretara hartuko dugu, beherantz. Arriandiko industria-gunea pasatu ondoren, Durangorantz abiatuko gara bidegorritik.



2. IBILBIDEA Baso artean

